

IRIZPIDE KOMUNAK

EGOERA BEREZETAN ERROLDATZEKO

1. SARRERA

Dokumentu honen bidez, udaletan irizpide edo jarraibide komunak ezarri nahi dira, egoera berezietan dauden pertsonen erroldatzearen erregulazioa errazteko, eta biztanleriaren eta etxebizitzaren errealitateko aldaketetara eguneratu eta egokitzeko, lana errazteko eta eztabaidak eta interpretazio desberdinak saihesteko, erantzun homogenea, eraginkorra eta segurtasun juridikoa eman ahal izateko helburuarekin.

Erroldatzeko ahultasun-egoeragatik edo gizarte- eta egoitza-bazterketako egoeragatik zailtasun gehien dituzten pertsonak zein egoeratan egon daitezkeen argitu nahi da, arau-esparrua errespetatuz eta, betiere, erroldatze-arloan eskumena duten udal-organoen koordinazioarekin eta dagozkien administrazio-unitateekin lankidetzan.

Erroldatzea **administrazio-egintza** bat da, eta horren **helburua da egitate bat jasota uztea**: pertsona bat udalerri batean bizi dela, eta bertan helbidea jasota uzten duela. Udalerri bateko erroldak bertan bizi diren pertsonen errealitatea jasotzen du, eta pertsona bakoitza bizi den lekua islatzen du; ez du egiaztatzen edo justifikatzen higiezin baten gaineko jabetza- edo okupazio-eskubidea.

Alde horretatik, **erroldak ez du eskubiderik sortzen; ez etxebizitza baten gaineko okupazioari edo erabilera- edo jabetza-eskubideei dagokienez**, ezta etxebizitzaren bizigarritasunari eta erabilera aldatzeari dagokionez ere.

Euskadin, gainera, errolda da **herritartasun-eskubide ugari eskuratzeko giltza**, ez bakarrik sufragio aktibo eta pasiborako eskubidea, baita zenbait gizarte-eskubide ere, hala nola osasun-laguntza, gizarte-zerbitzuak eta gizarteratze-sistamarako sarbidea.

Atzeritarren kasuan, funtsezko elementu bihurtzen da bizileku jarraitua egiaztatzeko, beharrezkoa baita salbuespenezko zirkunstantzien ondorioz bizileku- eta/edo lan-baimena eskatzeko prozedurak hasteko.

Udal bakoitzak, bere **udal-autonomiaren** arabera, ezarriko ditu irizpide horiek, bere gizarte- eta udal-errealitatera eta bere baliabideetara eta barne-antolamendura egokituz.

Erroldatzearen arloan indarrean dagoen araudian oinarrituta egin da dokumentua:

- [7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 15. eta 18. artikulua.](#)

- [1690/1986 ED, uztailaren 11koa, Toki Erakundeen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamendua onartzen duena.](#)
- [Apirilaren 29ko Ebazpena, Idazkariordetzarena, Estatistikako Institutu Nazionalaren Lehendakariaren eta Autonomia eta Toki Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusiaren 2020ko otsailaren 17ko Ebazpena argitaratzen duena, udalei udal-eroldaren kudeaketari buruzko jarraibide teknikoak ematen dizkiena:](#) Erroldatzea administrazio-egoera bat da, indarrean dagoen legediaren arabera nahitaezkoa, eta pertsonaren bizilekua bakarrik erakusten du, ez du justifikatzen edo gaitzen bertan bizitzeko titulua. Erroldan jasotako datuak udalerrian bizi izanaren eta bertan ohiko bizilekua izatearen froga dira (aurrerantzean, EINen ebazpena).

Dokumentu honetan jasotzen diren irizpideak honako printzipio hauetan oinarritzen dira:

- Pertsonak benetan bizi diren etxebizitzan erroldatzeko duten eskubidea eta betebeharra, etxebizitzaren titulartasunari buruzko eztabaida juridiko-pribatuak eta etxebizitzari eragiten dioten inguruabar fisiko, higieniko-sanitarioak edo bestelakoak alde batera utzita.
- Fikziozko helbide batera izateko aukera, etxerik ez duten pertsonen kasuan, edo bizilekuaren benetako helbidea ezin denean erroldan baliozko helbide gisa agertu, erroldatutako pertsonari ezin zaiolako helbide horretara jakinarazpenik bidali.
- Fikziozko erroldatzeak, hainbat arrazoiengatik pertsona bat bere benetako bizilekua ez den beste helbide batean erroldatzen den kasuei dagokie.

2. ERROLDATZEKO IRIZPIDE KOMUNAK

Estatistikako Institutu Nazionalaren Lehendakariaren eta Autonomia eta Toki Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusiaren [2020ko otsailaren 17ko Ebazpena](#) (aurrerantzean, "**jarraibide teknikoak**") argitaratzen duen apirilaren 29ko Ebazpenaren 3. Puntuan, udalei udal-eroldaren kudeaketari buruzko jarraibide teknikoak ematen dizkien horretan, erroldatze-kasu bereziak jasotzen dira.

Bere edukiaren barruan, [3.3 puntuak](#) infraetxean erroldatuta egotearen eta bizilekurik gabeko pertsonen kasuak jorratzen ditu. Hain zuzen ere, udalerrian bizi ohi diren, etxebizitza txikiagoetan bizi diren edo aterperik ez duten eta gizarte-zerbitzuek ezagutzen dituzten pertsonen kasuak dira, eta horregatik fikziozko bizileku batera jo behar da. Kasu hori eta erroldatze bereziei buruzko atalean jasotzen diren gainerakoak udal-eroldak arautzen dituzten arau orokorren salbuespenak dira.

Jarraibide tekniko horiek udalerrri guztietako erroldaren kudeaketan aplikatu behar dira.

Hori dela eta, irizpide komun hauek irizpide horietan eta indarrean dagoen gainerako araudian oinarrituko dira; izan ere, erroldak udalerriko bizilagun bakoitza benetan bizi den helbidea islatu behar du, araudi honetan jasotako kasu bereziak izan ezik.

Udal bakoitzak bere lurralde-eremuan gertatzen diren horrelako kasu guztiak kudeatu beharko ditu, erroldan bertan benetan bizi diren pertsonak jaso behar baitira.

Gainera, gogoratu behar da [Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 44.1 b\) artikuluan](#) ezartzen dela udalerrri bateko bizilagunek jakinarazi egin behar dutela udal-erroldan agertu beharreko datuak aldatzea dakarten gorabehera pertsonalen edozein aldaketa.

2.1. Identifikazio-agiririk ez duten pertsonak

[Azaroaren 20ko 14/2003 Lege Organikoak](#) Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 16. artikulua aldatu zuen, eta lehentasun-ordena bat ezarri zuen identifikazio-agiriaren zenbakiaren gainean. Zenbaki hori nahitaezko datu gisa jaso behar du erroldak, bizilagun berriaren nazionalitatearen arabera, bai eta administrazioarekin duen egoera erregularra edo irregularra den ere.

Toki Erakundeen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamendua onartzen duen uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren 57. artikulua, [otsailaren 6ko 141/2024 Errege Dekretuak](#) egindako azken eguneratzean, lehentasun-ordena hori bera jasotzen du, erroldan nahitaezko datu gisa jaso behar den identifikazio-zenbakiaren inguruan. Nahitaezko datuen multzo horren barruan daude, halaber, izen-abizenak, sexua, ohiko bizilekua, nazionalitatea, jaioterria eta jaioteguna. Artikulu berean, nahitaezko datu horiek beste datu batzuekin kontrajartzen dira, boluntario gisa ordezkari gisa ager daitezkeenekin, telefono mugikorraren edo finkoaren zenbakiarekin eta posta elektronikoarekin.

[Jarraibide teknikoan 2. puntuak](#) parekatu egiten du nahitaezko datu hori pertsona identifikatzeko moduarekin, eta, halaber, dokumentu horiek indarrean egon beharko dutela adierazten du, baina ez da baliozkoa izango iraungitako dokumentu bat, hura berritzeko eskaera aurkezten denean izan ezik. Horrela ulertu dute gai horri heldu dioten Erroldatze Kontseiluaren ebazpenek ere.

Horrela, bada, identifikazio-dokumentaziorik ez duten pertsona jakin batzuei ezin zaie erroldan alta eman jarraibide teknikoak urratu gabe. Normalean egoera irregularrean dauden atzerritarrei eragiten dien egoera horrek NAN eta pasaporterik ez duten nazionalitate espainiarreko pertsonen ere eragin die. Askotan, bazterketa-prozesuekin edo gizarte-bazterketaren arriskuarekin batera gertatzen diren egoerak dira.

Kontuan izan behar da, pasaportea berritzea ezinezkoa edo zaila den kasuetan (inskripzio-zedula) pasaportearen ordezkari dokumentu bat lortzea, atzerritarrei buruzko legeak ez duela beti erantzunik ematen, edo kasurik onenean, prozedura motela eta zaila dela, harrera-zerbitzuen, gizarte-zerbitzuen eta gizarteratze-zerbitzuen laguntzarik gabe. Pertsona erroldatuta ez badago, ezin izango ditu zerbitzuak erabat eskuratu.

Pertsonak identifikazio-agiri horiek ez aurkezteak ez dirudi atzera egitea eragin dezakeenik; izan ere, pertsona udalerrian bizi dela egiaztatuz gero, Udalak ofiziozko altaren izapideak hasiko lituzke, Aldi Batez Lekualdatzeko Erregelamenduaren 73. artikulua araberaren arabera. Egoera horren aurrean, erroldatu ezean, espedienteak ezezko ebazpen batekin amaitu beharko luke, eta bidezko diren errekurtsoen bidea ireki bide administratiboan eta administrazioarekiko auzibidean.

Interpretazio horiek, hala ere, talka egiten dute [TAOLen 17.1 eta 2 artikuluetako](#), [LEDen 62.2 artikuluko](#) eta [LOEren 6.3 artikuluko](#) erroldaren kudeaketa-betebeharrekin ez ezik, [Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 17.1 artikulua](#)ren 13., 14. eta 35. zenbakietan artikulatzen diren gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren, gizarteratze-sistemaren eta harrera- eta integrazio-sistemaren eremuko udal-erantzukizunekin ere.

Egoera horren aurrean, **pertsona jarraibide teknikoetan eskatzen den identifikazio-dokumentaziorik gabe joango balitz erroldatzera, bere eskaera erregistratuko da, eta aurkeztutako eskabidearen egiaztatzea, zigilua jarrita, emango zaio.**

Halaber, **aurkeztutako dokumentazioa zuzendu behar dela jakinaraziko zaio, bai eta alegazioak aurkeztu behar direla ere, dokumentazio hori zergatik ezin duen aurkeztu azaltzeko.** Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, eskaera onartu edo ukatu egingo da, eta, azken kasu horretan, jasota geratuko da udalerrian bizi dela egiaztatu dela, nortasuna egiaztatzeko aurkeztu den dokumentazioa aurkeztu dela eta haren aurka administrazio-bidean eta administrazioarekiko auzibidean jar daitezkeen errekurtsioak aurkeztu direla.

Nolanahi ere, kontuan izan behar da jarraibide teknikoek aukera ematen dutela iraungitako dokumentazioarekin erroldatzeko, baldin eta hura berritzeko eskaera aurkezten bada.

2.2. Egoera berezietan erroldatzea

Honako egoera hauek bereizten dira:

2.2.1. Bizilekurik gabeko pertsonak

Erroldaren ondorioetarako helbide baliozkorik ez duten pertsonen kasuan, **fikziozko bizilekuan erroldatu beharko da**, [Jarraibide Teknikoen 3.3 puntuan](#) arautzen den bezala.

2.2.2. Egoera txarreko etxebizitzetan dauden pertsonak

Jarraibide teknikoek [3.3 puntu](#) ezartzen duten bezala, egoera txarreko etxebizitzak (txabolak, karabanak, kobazuloak, etab.) egoitza balioudun gisa ager daitezke eta erroldan agertu behar dute.

Erroldatuaren **inskripzioan agertzen den bizilekura zuzendutako jakinarazpena helarazteko aukerak edo ezintasunak** zehazten du erabaki hori lehenetsi behar duen irizpidea.

- Arrazoizkoa jotzen bada jakinarazpen hori hartzailearen eskuetara helduko dela, helbide horretan erroldatu beharko da, eta benetako bizilekua izango da.
Kasu horietan, izapidea udaleko errolda-zerbitzuan hasi eta amaitzen da.
- Errolda-zerbitzuaren irizpidearen arabera pertsona horrek ezin badu jakinarazpenik jaso helbide horretan, fikziozko bizilekuan erroldatzeko izapidea hasi ahal izango da.

2.2.3. Etxebizitza batean bizi eta erroldatzeko zailtasunak dituzten pertsonak

Jarraian, etxebizitza batean bizi diren eta **hirugarrenen eragozpenengatik etxebizitza horretan inskribatu ezin duten** pertsonen kasuan nola jokatu zehazten da, eta etxebizitza galtzeko mehatxua adierazten da (eta/edo lana galtzeko mehatxua, etxeetan barneko lan egiten duten pertsonen kasuan), ofiziozko errolda eginez gero, errolda-orrian ez baitute lortzen etxebizitzan inskribatzeko baimena, beste pertsona okupatzaile batzuek edo jabetzak emandako etxebizitzaren erabilera legitimatzeko dokumentua izan edo ez.

Kasu horietan, ebazpenarekin bat etorritik, ofiziozko errolda-inskripzioa egin beharko litzateke, baldin eta, izapidetzen ari den bitartean, interesdunak adierazten badu etxebizitza galtzeko arriskua duela eta, ondorioz, pertsonak okerrera egin duela gizartean. Hori horrela, etxegabetasun-egoera batekin parekatzea proposatzen da, [Euskal Autonomia Erkidegoko Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 3. artikulua](#)ren "m" atalarekin eta [Estatuaren Etxebizitzarako Eskubidearen aldeko maiatzaren 24ko 12/2023 Legearen 3. artikulua](#)ren "l" atalarekin bat etorritik.

Bi legeetan etxegabetasunaren kontzeptua definitzen da, eta bertan etxebizitza desegokia eta etxebizitza ez-segurua sartzen dira. 12/2023 Legeak etxebizitza egoki gisa ezartzen du honako hau: bere tamaina, kokapena, bizigarritasun-baldintzak, irisgarritasun unibertsala, eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarrien erabilera eta haren gainerako ezaugarriak direla-eta, eta oinarritzko hornidura-sareetara sarbidea izanik, pertsona edo bizikidetzak-unitatearen egoitza-premiei erantzuten dien etxebizitza, finantza-ahaleginaren arabera baldintza eskuragarrietan, bere bizilekua, bizilekua edo etxea izanik duintasunez bizitzeko, bere intimitatea babestuz, eta familia- edo gizarte-harremanez gozatzeko, pertsonen erabateko garapena eta gizarteratzea erraztuz.

Gure kasuan, erroldatuta ez dauden pertsonak ezin dute erabateko garapena eta gizarteratzea berme osoz gauzatu, ezin dutelako gizarte, herritar eta hurbileko osasun baliabiderik eskuratu, besteak beste, erroldarik ez dutelako eta horrek etxebizitza desegoki batekin parekatu eta, beraz, etxegabetasun-egoera batekin erkatzen dutelako.

Erroldaren helburua gertaera bat jasota uztea denez, ezin zaio edozein pertsonari erroldan inskribatzea ukatu ohiko bizilekua bizileku batean duela egiaztatu ondoren, eta jarduera horrekin ez zaio inolako normaltasunik edo zilegitasunik ematen horretarako gaitzen duen titulu juridikorik edo bestelako erabilera-eskubiderik gabe higiezinan egoteari.

Erroldaren helburua gertaera bat jasota uztea denez, ezin zaio edozein pertsonari erroldan inskribatzea ukatu, ohiko etxebizitza bizileku batean duela egiaztatu ondoren; eta jarduera horrekin ez zaio inolako normaltasunik edo zilegitasunik ematen higiezinan egoteari, horretarako gaitzen duen titulu juridikorik edo bestelako erabilera-eskubiderik gabe.

Biztanleriari eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamenduaren 59.2 artikulua eta jarraibide teknikoaren 2.3 puntuak hala ezartzen duenez, dokumentuak aurkezteko eskakizunaren helburua "jasotako datuen egiazkotasuna egiaztatzea" da, eta "ez die toki-administrazioei inolako eskumenik ematen jabetzari, hiri-errentamenduei edo, oro har, izaera juridiko-pribatuari buruzko gaiak epaitzeko; aitzitik, helburu bakarra du: bizilaguna adierazitako helbidean bizi dela egiaztatzeko froga-elementu gisa balio izatea".

Interesdunak udalerrian bizi dela egiaztatzen duen dokumenturik aurkeztu ezin badu (helbidea duten pertsonak, baina jabearen edo errentariaren baimenik gabe, edo antzeko kasuetan), jarraibide teknikoek 2.3. puntuan adierazten dute **Udalak egiaztatu beharko duela bizilekua**, eta, hala bada, Erroldan alta eman beharko diola.

Egiaztatzeko modua udal bakoitzari dagokio, zuzenbidean onartutako baliozko edozein bitartekoren bidez (udaltzaingoaren txostena, zerbitzuaren beraren ikuskapena, argi, ur, erantzukizunpeko adierazpen eta abarren hornidura). Garrantzitsua da Udalak kasu bakoitza aztertzea, pertsonaren kalteberatasuna artatzeko, bizileku horretan erroldatzeak ez dezan bere egoera sozial ahula okerragotu.

Kasu horretan, 2 egoera gerta daitezke:

1. Gizarte Zerbitzuek pertsona ez ezagutzea.

Ohiko bizilekua udalerrian dagoela modu frogagarrian egiaztatuko da. Egoitza egiaztatzeko modua udal bakoitzari dagokio, zuzenbidean baliozkoa den edozein bitartekoren bidez. Adingabeak dituzten familien kasuan, adingabeen eskolatzetziurtagiriak froga-agiri pribilegiatua izan behar du, udalerrian bizitzea ohikoa dela egiaztatzeko.

Ohiko bizilekua berresteko eskumena duen organoak egoitza-ezagutzari buruzko txostena egingo die gizarte-zerbitzuei, gizarte-zerbitzuek egoitza-txostena egin dezaten eta errolda-inskripzioan zer helbidetan agertu behar duten zehaztu dezaten.

2. Gizarte Zerbitzuek pertsona ezagutzea:

Gizarte Zerbitzuek pertsona hori ezagutzen badute, egoitza-txostena egingo dute, eta errolda-inskripzioan agertu beharreko helbidea zehaztuko dute.

2.2.4. Bizitoki kolektiboetako pertsonak

Bizitoki kolektiboak baliozko bizilekutzat joko dira erroldan, indarrean dagoen araudiaren arabera. Beraz, **erroldatze-izapidea udal-erroldaren edo -estatistikaren zerbitzuari egokituko zaio oso-osorik**, [Jarraibide Teknikoen 3.2 puntuan](#) ezarritakoaren arabera.

2.2.5. Fikziozko bizilekuan erroldatuta egotearen beste salbuespenezko egoera batzuk

- a) Lehen mailako arretako gizarte-baliabideetan bizi diren pertsonak: Kasu horietan, bizi den baliabidean erroldatuko dira edo fikziozko bizilekuan, hala ezarrita dagoen egoeretarako. Horretarako, udaleko gizarte-zerbitzuen txostena aurkeztuko da.
- b) Bigarren mailako arretako gizarte-baliabideetan bizi diren pertsonak: Kasu horietan, bizi diren baliabidean erroldatuta egongo dira edo fikziozko bizilekuan, hala ezarrita dagoen egoeretarako. Horretarako, bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuen txostena aurkeztuko da.
- c) Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak eta haien seme-alabak udal- edo foru-baliabideetan bizi badira: Kasu horietan, fikziozko bizilekuan erroldatuko dira, haien segurtasuna zaintzeko. Horretarako, udaleko gizarte-zerbitzuek edo udaleko berdintasun-arloko langileek egindako txostena aurkeztuko da, jarraibide teknikoen [3.5 puntuan](#) ezarritakoaren arabera.